

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info

Ostirala, 2012ko abenduaren 14a. IX. urtea. 2.451 zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Manillares Iturriaga taldea agurtzera doa

Alegiako musika taldeak azken kontzertua
emango du bihar, gaztetxearen festan ◯4

Eider Imaz Sortu alderdiko eztabaidaren
lantaldeko kidea

«Sortuk herrigintza egiteko beste eredu batzuk daudela erakutsi behar du»

Alderdiak bigarren batzarrak egingo ditu ◯2

Bengoetxea lau t'erdiko finalerako prest

Leitzarrari ez zaio gustatu
Olaizolaren materiala ◯7

Ikurrinaren aldeko ekitaldiak

Leaburun eta Iruran egingo
dituzte, igandean ◯6



A. IMAZ

→ **Juanda de la Peña, Zizurkilen.** Atzo hasi zuten Kirol Astea Zizurkilen, eta horretarako Bike Trial Eguna izan zuten, munduko txapelduna izandako Juanda de la Peña ere bertan egon zelarik (irudian). Gaur Jon Irazu aizkolaria omenduko dute eta Aizkora hotsak goi mendietan dokumentala ere ikusi ahal izango da. ◯6

ZUNTZA DA AURTENGO GABONETAKO IZARRA

**BENETAKO
20 MEGA
+ PREMIUM TBa
+ finko eta
mugikorrerako
deiak**

**Hilean
35,8€
soilik
ordainduta, urtebetez.**

**Alta eman
urriamartaren
baino lehen** **5€**

**Logikaline
943 31 86 11**

**irratikartel
irratiaile
ofiziala**

2013/01/05a baino lehen Euzkaltelen Zuntz Opticoen alfa ematen duferentziat bali du sustapen honek. % 50eko deskontua 20 Mega DuCaren eta Premium telebistaren hileko kuxotan, eta % 48,7ko deskontua linearen kuxotan, aldatzen den egunerik hasi eta 12 hilabetez aplikatukoak. Zuntzean eta finda zabalean 12 hilabetez kuxoteko konpromisoa. Irati aurrez eskatutako kuxotua: 15 € produktua eta beste gabonetako hileko konpromisoa. Baina hartzen ditu irratikartelaren deiala (4.000 minutu) eta irratikartelaren mugikorrerako deiala (60 minutu). Zuntz Opticoen instalazio berentzat soilik da dagoela alfa. Deskontuak ez dago sartuta. Premium zerbitzu teknikoaren lehen 3 hilabeteetan kuxotarenetik aurrera, berriz, 3,5 € hileko. 962 ez dago sartuta. Muga 125 gte.

Eider Imaz ◉ Sortu alderdiko eztabaidaren lantaldeko kidea

Ezker abertzalearen alderdi berria sortzeko bigarren batzarra egingo dute Tolosaldeko hainbat herritan, gaur eta bihar; Sorturen ildo politikoen atala aztertu eta eztabaidatuko dute.

«Asko eman duen herri baten aurrean gaude, eta bideari jarraitzea dagokigu»

Eneritz Maiz

Ezker abertzalea alderdi berria eratzeke prozesuan sarturik dago buru belarri. Lau batzar aurrekusi zituzten horretarako, eta lehena, jadanik egina dute. Eider Imaz (Ibarra, 1977), Tolosaldeko Sortu eztabaidaren lantaldeko kidea da.

Lehen batzarraren xehetasunak azaltzeaz gain, Imazek, aste-buru honetan izango den bigarrenaren nondik norakoak azaldu ditu. Ibartarrak, alderdi berria modu honetara zergatik eratu nahi duten ere azaldu du.

Sortu sortzeko lehen batzarra azaroaren 24an izan zen. Bertan, alderdiaren oinarri ideologikoa finkatu, eta jendearen ekarpenak jaso zenituzten. Zein balorazio egiten duzu? Nolakoa izan zen jendearen erantzuna?

Tolosaldean azaroaren 24ko lehen batzarra, hamar herritan egin zen. Guztira 200dik gora emakume-gizonek hartu zuten parte. Balorazioa, beraz, positiboa da guretzat, norbanakoen iritzia jasotzeko eta entzuteko tartea izan baitzen. Ekarpen kopuru handiak egon direla esan beharra dago. Etxean aurrez eginiko lana, zein unean bertan iritzi ematea, eskertzekoa da. Gainera, eztabaida bera aberasten lagundu zuen batzarkide bakoitzak.

Batzarrak dinamikoak izatea nahi zenuten, jendearen parte hartzea bultzatzu; lortu al zen?

Sorturen sorreran oinarri garrantzitsua izan behar duen eztabaida izan zen; denon ahotsak entzuteko eta jasotzeko lehen saioa. Garrantzi handikoa da, horretan

asmatzea. Horrela izaki, metodologia berriak erabili dira herriz herri; dinamizatzaile taldeak sortu dira eztabaida hemen den herrietan. Lantalde hauei esker, emaitza onak izan ditugu. Metodologia egokia izateaz gain, dinamizatzaile egokiak izan direlako herrietan, batzarrera hurbildu direnen balorazio eta pertzepzioak oso positiboak izan dira. Hobetze-ko ere asko dugu, eta izango dugu ziurren, eta lehen batzarraren balorazioek bigarrenaren erronkan asmatzeko irakasbideak utzi dizkigute. Erlaxatu gabe, asmatu dugulakoan gaude.

Nabari al zen hortaz, jendeak proze-

«Sorturen egunerokoan, herritarren ahotsek izan behar dute gidari»

suetan parte hartzeko gogoia duela? Politika jasotzeko modu 'tradizionala' baino gehiago nahi duela?

Gure herria ez dago lozorroan, gure herritarrek ez daude lokartuak eta hori, urte luzeetan, borroka eta lanaz erakutsia izan da. Jendeak, parte hartzea eskatzen du, eta parte hartu behar du. Denok dugu asko esan eta egiteko. Abiadura bizian aldatzen ari den jendartearen gauza asko aldatu behar ditugu eta politikagintza ez da salbuespena. Eredu asko daupe politikak egiteko, eta Sortuk, herriagintza egiteko beste eredu batzuk daudela erakusteko boka-zioa izan behar du. Gure egunerokoan, herritarren ahotsek izan behar dute gidari.

↓ Sortu prozesua

BIGARRREN BATZARRA

■ **Gaur:** Bidegoian, 21:00etan, erabilera anitzeko gelan.

■ **Bihar:** Lizartza, Irura, Anoeta, Amasa Billabona, Zizurkil, Tolosa, Ibarra, Gaztelu, Oresa, Altzo eta Leaburu-Txaraman.

■ **Harremanetarako:** Eskualdeko lantaldeko kideekin harremanetan jartzeko, ondorengo helbidera idatzi behar da:

s.tolosaldea@gmail.com.

Bigarren batzarra larunbat honetan izango da herri gehienetan, eta bertan, ildo politikoa zehaztuko duzue. Zein da abiapuntua?

Sortuk, bere ibilbidea ez du hutsetik hasten. Sortuk, urteetako lan baten haria izan behar du. Urteetan, Euskal Herriaren askatasunaren norabidean ekarpen eta bide asko eginak dira. Asko eman duen herri baten aurrean gaude, eta bideari jarraitzea dagokigu. Ezker abertzaleak, datozkigun urteei begirako norabide politikoa *Zutik Euskal Herria* eztabaidan finkatu zuen berriki. Ildo politikoa eztabaidak, eraikuntza nazionala, gatazkaren konponbidea, konfrontazio demokratikoa eta estrategia politiko zein taktikoak landuko ditu. Eztabaidak, Euskal Herriaren askapen proze-



HITZA

suan aurrera begirako ildoen zehaztapena marraztu behar du.

Era berean, barne hauteskunde prozesurako hautagaien zerrendak ere itxi nahi dituzue ondorengo batzarretan. Ez da ohikoa izaten horrelako prozesu irekiak ematea alderditan, zergatik aukeratu duzue metodologia hau?

Metodologia honek, zer nolako Sortu izatea nahi dugun islatzen du. Hau da, barne demokrazia eta parte hartzea bultzatuko dituen Sortu hasieratik landu behar da. Ez gara eta ez gara izango, ohiko diren alderdien kalkoa. Herrita-

ren parte hartzeak bizitza eman-gio dion mugimendua izan nahi dugu. Barne hauteskundeak, norabide horretan jarri ditugu.

Zeintzuk izango dira gertuen dituzuen hitzorduak?

Aurreragoko urratsei dagokionez, bigarren batzarrak ditugu gain-gainean. Abenduaren 13tik abenduaren 16ra bitarte izango direnak. Guztira, lau batzar egitea zen hasierako asmoa. Herrietatik jaso diren ekarpen kopuruak tarteko, batzar kopuruak alda daitezke, eta herriek tokian tokiko erabakiak hartuko dituzte.

Eta aurrera begirakoak?

Hirugarren batzarrei dagokionez, urtarrilaren 26an egiteko asmotan gabilta, antolaketa eta funtzionamenduaren ingurukoak izango dira. Otsailean, aldi, barne hauteskunde batzarrak egingo ditugu. Eztabaida saioa, kongresuarekin amaituko genuke behin behingoz. Halaber, eztabaida hau, ez da hasiera eta amaiera duena. Sortuk, sortzen eta eztabaidatzen jarraitu behar du aurrera begira ere. Alpagarria da, eskualdean herri txiki asko ditugula, eta horietara ere iritsi nahiko genukeela. Horretarako, tokian tokiko egokitzapenekin, denetara urreratzeko asmoa dugu.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

SALGAU EDO ALOKAIRUAN

Txakurkumeak. Arratoi txakurkumeak saltzen ditut. Interesa duen edonork, dei dezala 618 47 09 86 telefono zenbakira.

Ile apaindegia. Villabonan, ile apaindegia saldu edo alokatu nahi dugu. Interesa duen edonork, 630 09 90 92 telefono zenbakira deitu behar du.

Autoa. Citroen Berlingo XTR saltzen dugu, 2008. urtekoa. Aukera ezin hobea da. Interesa duen edonork, dei dezala 635 20 30 56 telefono zenbakira.

LAN BILA

Etxeko lanak. Etxeko lanetarako: etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Deitu, 943 696882 edo 606 521992 zenbakira.

Etxeko lanak. Neska ardura-tsua, sukaldarako, garbiketa edota etxeko lanetarako bere burua eskaintzen du. Esperientzia du eta erreferentziak ere badauzka. Interesatuak, deitu 600 876942 telefono zenbakira.



Ezkerrean, Intxurre elkarte talde nagusia, Erregional mailan dagoena. Eskuinean, infantil mailako nesken taldea. HITZA

Bost talde daude denboraldi honetan Intxurre kirol elkarteak, eta guztira 101 futbolari aritzen dira bertan

Imanol Garcia Landa Alegia

Alegiako Intxurre Kultur eta Kirol Elkartek bost talde ditu denboraldi honetan, eta horietan guztira 101 futbolari ari dira jokatzen. Herrikoiez gain, Alegialdeko beste hainbat herriko jokalariek parte hartzen dute taldeetan. Izan ere, azpieskualdeko futbolearen erreferentzia da Intxurre. Aurten ez da kadete mailako nesken taldea osatu, ez baitira futbolari nahiko bildu.

Talde nagusia Erregional lehen mailan dago. 18 fitxa daude, eta Santos Irazustabarrena da entrenatzailea eta ordezkar lanetan Javier Ezeiza aritzen da. Egun taldea bigarren dago eta Irazustabarrena azaldu duenez, «igoera fasea jokatzeak asmoa dugu eta datorren urtean Preferente mailara igo nahi dugu». Denboraldian partida bakarra galdu dute.

Jubenilen taldea lehen mailan dago eta 20 fitxa ditu. Joxan Otano da entrenatzailea eta Clemente aritzen da ordezkar lanetan. Lehenengo fasean daude, laugarren postuan, eta zurrerik Gipuzkoako Kopa jokatuko dute. Kadeteetan lehen mailan daude eta 20 fitxa dituzte. Eneko Garmendia da entrenatzailea, eta Urko Urtaza eta Imanol Irazustabarrena dira ordezkariek. Lehen

Futbolaren erreferente Alegialdean



Ezkerrean, jubenil mailako taldeko kideak, eta eskuinean kadete mailako taldeko kideak. HITZA



Infantil mailako mutilen taldea da kide gehien dituenak. HITZA

fasearen ondoren, bigarrenak dira eta igoera fasea jokatzeak aukerak dituzte.

Infantil mailako mutilak lehen mailan ari dira, eta 26 fitxa dituzte. Imanol Jimenez da entrenatzailea. Lehen fasea jokatzen ari dira eta bigarren postuan daude. Gipuzkoako Txapelketa jokatzeak aukerak dituzte.

Infantil mailako nesken taldeak futbol 8ko lehen mailan jokatzen du eta 17 fitxa daude. Alain Etxarri eta Beñat Amiano dira entrenatzaileak. Lehen fasea jokatzen ari dira, hirugarren postuan daude eta zurrerik Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

Taldeak «bikain» ari dira

Patxi Renobales elkarteak koordinatzaileak azaldu duenez, taldeak aurtengo denboraldian «bikain» ari dira, batez ere, infantil

mailetan. «Gogoan izan behar da talde hauetako jokalariek asko eskola kirolatik datozela eta ez dutela sekula futbol zelai handian jokatu». Intxurre elkarteak hitzarmena du Aralar institutuarekin, eta horregatik infantil mailako bi taldeek Intxurre Aralar izenarekin parte hartzen dute. Intxurrek jartzen ditu materiala, entrenatzaileak eta beste zenbait baliabide.

Aurtengo denboraldiko aurrekontua 28.000 eurokoa da eta hainbat erakundetatik jasotzen dute laguntza: Alegiako Udala, Realak, Alegiako dendaria eta tailerrak, eta Tolosaldeko beste komertzio batzuk ere. Bestalde, 280 bazkide ditu elkarteak eta hauen laguntza eskertzen dute elkarteak.

Intxurren futbol zelaia harri txintzarrezkoa da. «Gipuzkoan bakarra da», esan du Renobalesek, «eta horrek beste taldeen kezak entzutea ekartzen du. Gure jokalariek ez dira kekatzen, ohiuak daudelako. Egia esan, zaila da gure taldeari etxean irabaztea. Hala ere, gustura hartuko genuke belar artifizialeko zelai berri bat, baina egungo egoera ekonomikoa nola dagoen ikusita...». Bide batez, Renobalesek gogora ekarri du zuzendaritzan lana pilatu egiten dela: «Deia egiten dugu jende gehiagok parte hartu dezan zuzendaritzan aritzeko».




LAGUN ARO GBC
Cai Zaragoza
saskibaloi partida

sarrerak

sariduna
2 sarrera

Inma Lopetegui Etxeberria (Irura)

Sareari jasotzeko, HITZAren Tolosaldeko egoitzatik pasa

Abenduak 19 - Asteazkena
20:00
Donostia Rumben





Manillares Iturriagaren azken festa saioa

Alegiako Gaztetxearen 25. urteurreneko egun nagusian, bihar, kontzertua joko du musika taldeak

Imanol Garcia Landa Alegia

Manillares Iturriaga ez da ohiko musika taldea. Musikiariak berdinak badira ere, kantu batetik bestera abeslaria aldatu egiten da, eta horrek eszenatoki gainetik jende mordo pasatzea eragiten du. Izan ere, taldekide kopurua josten dituzten abesti kopuruaren arabera izaten da. Manillares Iturriagak bere bi urte eta erdiko bidea etetea erabaki du eta azken kontzertua emango du, bihar, Alegiako Gaztetxearen 25. urteurreneko ekitaldien barruan egingo den Gaztetxearen Egunean.

Talde alegiarraren muina musikariak dira: Manex Elola (gitarra), Jon Aranburu (gitarra), Txarli Gesteira (gitarra), Unai Iraola (baxua) eta Julen Goikoe-txea (bateria). Taldearen izenak eta sorrerak bere istorioa du. «2010ean, herriko abesbatzaren 50. urteurrena zela eta, egun osoko festa egin zen», dio Goikoe-txek. «Gauko kontzertua jotzeko



Manillares Iturriaga taldeko zenbait kide, aurtengo herriko festetan. HITZA

Ziklox Garaialde talde ohiaren kideei eskatu zitzaizkien, eta hauek herriko beste talderen batek parte hartu zezan eskatu zuten. Unai, Manex eta hirurok bertsioak egiten ari ziren ginen, baina egun horretarako pentsatu genuen parte hartzea berezia izan behar zuela, eta kanta bakoitza abeslari ezberdin batek kantatzea otu zitzaigun. Emanaldiaren kartela egiteko izena behar zela esan zuten, eta Ziklox Garaialdetik abiatuta Manillares Iturriaga atera zen».

Lehen eguneko formula horrekin jarraitzea erabaki zuten. «Harrigarria izan zen abestera gonbi-

datu genituen guztiek baietz esan zigutela», dio Goikoe-txek. Bigarren kontzertua urte horretako herriko festetan izan zen, uztailean, bulebarreko gunean. Pixkana abeslari gehiago batzen joan dira eta biharko emanaldian 35 abesti joko dituzte.

Bi urte eta erdi horietan 30 emanaldi inguru egin dituzte. Guztietara, musikariek gain, abeslari denak joan dira. «Ondarroan emandako kontzertua autobusean joan ginen», gogoan du Goikoe-txek. Festa eta giro ona ziurtatuta izaten dela diote taldekideek: «Gutxienez 30 lagun kontzertua entzuten izango direla badakigu».

↓Gaztetxearen Eguna

ABENDUAK 15, BIHAR

- **11:30.** Sagardoa eta txorizoa banatuko dute plazan. Ondoren, rumba poteoa, Harry & Quittau y los Desenfinas taldearen eskutik.
- **14:30.** Babarrun jatea.
- **16:30.** 7e pasa pilota txapel-

Bestetik, kontzertuak egin diren lekuetakoei gonbidapena egiten zieten kantak abesteko, eta zenbaitetan onartu izan dute.

Euskal taldeen bertsioak egin dituzte, hasi 80ko hamarkadatik, tartean Ziklox Garaialde taldearen abestiak, eta gaur egun arte. Abesti bat ere sortu dute, *Bibala-birjen* izeneko, gaztetxearen 25. urteurrena dela eta. Alegiako bertso eskolakoek idatzi dituzte hitzak.

Hainbeste kide izateak eskaltzen duen antolakuntza lan handia izan da, batez ere, taldearen ibilbidearekin bukatzeko arrazoia. «Hainbeste jenderekin entseguak egitea konplexua izaten da», esan du Iraolak. «Bestetik, bi urte eta erdi ondoren, hasierako emozio horren aparra jaisten joaten da, eta garrantzitsua da oroi-

ketako finalak. Ondoren trikitioa.

- **21:00.** Zahagiardoa gaztetxean.
- **22:30.** Manillares Iturriagaren kontzertua gaztetxean eta ondoren Beba, Panda, Deepre-sion, Xugua eta Alexander Loop DJ-en saioak.

tzapen on horrekin geratzea, amaiera on bat ematen jakitea honi guztiari».

Egun berezia

Kontzertuaz gain, beste hainbat ekitaldi izango dira egun osoan zehar biharko Gaztetxearen Egunean. Musika izango da protagonista bat, goizean, arratsaldean eta gauean egongo delako. Manillares Iturriagaren emanaldiaren aurretik, zahagiardoa egingo da gaztetxean: bakoitzak jatekoa eraman behar du eta gaztetxeak ardoa jarriko du. Kontzertua eta gero, festa luzatzeko, bost DJ egongo dira.

Gaztetxearen 25. urteurreneko egitarauaren barne, gaur ere izango da ekitaldirik: 22:30ean hasita, ping-pong txapelketa jokatu-ko dute.

Gutuna

Hator, hator, etxera!

Euskal Herrian urte askotan luzatu den egoera aldatzen ari da azken urteotan. Egoera berria bizi dugu Euskal Herrian. Pozgarria da jendartearen pairatzen ziren zenbait egoera gordin gainditu direla ikustea. Baina zori- txarrez ez dira egoera gordin guztiak gainditu. Espainiako eta Frantziako estatuek egoera lehenengoan mantentzeko saiakera itsuan jarraitzen dute. Horren ondorioz milaka euskal herritarren egoera latzak bere horretan jarraitzen du. Egutegiak aurrera egiten duen bakoitzeko belztu

egiten da euskal presoek, iheslarien eta berauen senideen parranda.

Egoera beltz honen datuak beldurgarriak dira. Adibide gordinena dispartzioarena izan daiteke: 13 istripu daramatzagu bukatzeaz dagoen 2012an, 16 hildako azken 23 urteotan. Neke fisiko eta psikologiko itzela. Ekonomikoki odolustea. Urtean, batez besteko 20.000 euroko zama familia bakoitzaren- tzat, bidaia gastuak bakarrik kontuan hartuz. Biderkatu 604 presogatik.

Herrira mugimenduko kideok bi konpromiso argi ditugu: ez ditugula Euskal Herriko ehunka familia bakarrik utziko eta preso eta iheslarien egoera konpondu behar dira: euskal presoak Euskal Herriatu behar dira; gaixotasun larriak dituzten presoak aske utzi behar dira; espetxe zigorren luzatzearekin amaitu behar da eta bizi osorako espetxe zigorrek bertan behera utzi; eta dituzten giza eskubideak errespetatu behar dira.

Aldarrikapen hauei bultzada

bat eman eta bide honetan Espainiako eta Frantziako gobernuak urratsak eskatzeko manifestaldi handi bat burutuko da Bilbon, urtarrilaren 12an, eta lehen hauen bidez manifestazio honetan parte hartzeko gonbidapena egiten dizuegu herritar guztioi, eta bide batez Gabonetan Tolosan antolatutako ditugun ekimenetan ere: abenduaren 24ean, Gabon egunean, goizean kaleetan barrena kantari aterako gara, eta 18:45ean Trianguloatik manifestazioa egingo dugu; abenduaren 28an, hileko azken ostirala izaki, ohikoa den elkarretaratzea egingo dugu, 19:30ean. Alpatu

ere, sakabanaketa politikak sortzen duen odoluste ekonomikoa arindu asmoz preso eta iheslarien aldeko Herrira Elkartasun Denda zabalduko dugula bihar, abenduak 15, eta urtarri-lak 12 arte egongo dela zabalik Kale Nagusiko 5. zenbakian (lehen Zeru Txiki taberna zena).

Tolosarren elkartasuna eta parte hartzea aldeaz aurretik eskertuz, eta gureak berandu baino lehen etxean izan ditzagun besarkada bat eta urte berri on bat izatea opa dizuegu.

■ **Mikel Zabala.** Tolosako Herrira mugimenduaren izenez.



arregi

Soziala kalea 8 • 20400 TOLOSA

Tel: 943 67 11 42

www.arregi.org.es

Bisita gaitzazu

Egiptoarrek Tolosaldeko garapen eredua ezagutu dute

Erredakzioa

Egiptoko EASEDCUko enpresa txiki eta ertainen garapenerako egiptiar elkarteak da, eta aste honetan bertako agintariak Tolosaldean izan dira. Bisitarekin helburua eskualde mailan dauden eragileak ezagutzea izan da, eta eskualdearen garapena helburu-

tzat jota, hauen arteko elkarlana nola bideratzen den aztertzea.

Horretarako, eskualdeko lanbide heziketa zentroak ezagutu zituzten, eta baita Apattaerreaka industrialdearen bilakaera ere. Halaber, proiektuen bideratzaile eta koordinatzaile gisa, Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziaren eginkizuna azaldu

zieten. Enpresa munduarekin lotuta, Lehiberri, Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroa, aurkeztu zitzaizen, eskualdeko eragile pribatu eta publikoen elkarlanaren adibide argi moduan.

Eskualdearen lehiakortasunaren alde lan egiteko sortua izan da. Horren ondorio, eta urtea has-



Tolosaldea Garatzeneko ordezkariak, egiptoarrek. HITZA

tearekin batera irekiera emango zaion Lehiberri erakutsi zitzaizen. EASEDCUko Taher El Bakhen esanetan: «Tolosaldea eredugarria iruditu zaigu, udalerri kopu-

rua kontuan izanik, eta batik bat, batzuen tamaina txikia ikusita. Gaitasuna, borondatea eta erantzukizuna izan dituzte proiektua aurrera ateratzeko».

→ Laburrak

Eguberri kanpainarako produktuak bildu nahian

TOLOSA » Hirukide, urteroko moduan, Eguberri Kanpaina burutzen ari da Abegi eta Caritaseko erabiltzaileei laguntzeko. Luzaro irauten duten produktuak jasoko dituzte hilaren 21a bitartean. Bestalde, bihar, Tolosako supermerkatuetan, hau da, Maxi Eroskin, Consumeren, BMn eta Eko Tolosan egongo dira bezeroei egindako erosketatik apur bat emateko eskatzen, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Ekimen hau Batxilergoko 1. mailako ikasleek bultzatzen dute.

'Pura Vida' dokumentala astelehenean, Leidorren

TOLOSA » Tolosako Leidor zinema aretoan *Pura Vida* dokumentala eskainiko dute astelehenean, 20:30ean. Emanaldi berezia izango da gainera, bertan, Pablo Iraburu zuzendaritako bat izango delako. Iñaki Otxoa mendigoizale nafarraren erreskateari buruzko dokumentala da. Lau egunetako gertaeren berritzea da, protagonisten beraien eskutik. Lehenengo pertsonan gertaeren nondik norakoak kontatzen dituzte.

Bayoneta aldizkariaren 13. alearen aurkezpena

TOLOSA » *Negu madarikatu hura* Bayoneta aldizkariaren 13. alearen aurkezpena izango da, bihar. Kontzertua eta testu irakurketa izango dira Udal Musika eskolan. Napoleonen Grande Armée, Errusiatik 1812an atera zenekoaren gainean izango da.

Kirol galaren eguna eta ordua aldatu dituzte

TOLOSA » Tolosako Udaleko kirol zerbitzuetatik jakinarazi dutenez, Kirol gala datorren asteartean, hilaren 18an, izango da. 18:00etan emango zaio hasiera Leidor aretoan.

DAGOENeko 100.000 BAINO GEHIAGO GARA!

Euskaltelen 100.000 bezerok baino gehiagok dute mugikorrean Internet doan.

Eta zu, zeren zain zaude?



INTERNET DOAN MUGIKORREAN BETIKO.

Etxean Internet duten bezeroentzat soilik.



«Inposaketari aurre egiteko», ikurrina omenduko dute Iruran eta Leaburun

Ikurrinaren aldeko aldarria jai giroan zabalduko dute, herritarrei balkoian ikurrina jartzeko eskatuz

Asier Imaz

Irura eta Txarama-Leaburuko herritarrek ikurrinaren aldeko eguna antolatu dute etzirako, *Inposaketarik ez! Geurea ikurrina!* lelopean. Herritarrei deialdiarekin bat egiteko eskatu diete.

Iruran Espainiako bandera jarriko dute abenduaren 16an, eta inposaketa hori gogor salatu nahi izan dute: «Irurako herritar gehienentzat Euskal Herria da bere nazioa, eta ez dugu nahi gure herria beste baten menpe egotetik. Gure haserrea eta desadostasuna adierazi nahi dugu, inposaketa bidegabe honen aurrean».

Herritarrei ikurrina plazara ematea eskatu diete, ondoren, ba-



Uzturreko gurutzean, ikurrina. HITZA

koitzak bere balkoian zintzilikatze.

Leaburun inposaketa bera salatze, udaletxearen atzean horma margotuko dute. Goiz guztian zehar jai giroa egongo da herrian.

↓ Egitarauak

ETZI, ABENDUAK 16

Irura

- **11:45.** Inposaketaren aurrean adierazpena.
- **12:00.** Ikurrinari omenaldia, eta hamaiketako.
- **13:00.** Herri kirolak.
- **14:00.** Zarretzeko Babarrunda, trikitilariekin alaiturik. Hel- duek 18 euro, eta haurrek 4.

Leaburu-Txarama

- **09:30.** Udaletxe atzeko muralaren margoketa. *Geurea ikurrina, inposaketarik ez!* lelopean.
- **12:00.** Herriko dantzariak udaletxe aurrean ikurrina omenduko dute.
- **12:30.** Margotutako hormaren inaugurazioa.
- **Goizean zehar.** Musika girota egongo da Leaburuko plaza.



Euriaren ondorioz, Otañoiko frontoian aritu zen Juanda de la Peña. A. IMAZ

Juanda de la Peña izan da Kirol Asteko lehen izarra

Jon Irazu aizkolariari omenaldia egingo diote gaur; eguna amaitzeko, afaria egingo dute Urkamendin

A. Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Kirol Astea atzo hasi zen, Juanda de la Peñaren erakustaldiarekin. Bike Trial Eguneke lehen ekitaldia Aurrera plazan egiteko zen, baina euria medio, Juanda de la Peña Otañoiko frontoian aritu zen izar distiratsuen moduan: ikusgarri.

Kirol Asteak lau egun iraungo ditu, eta gaur, aizkora eta mendia uztartuko dituzte, afaria ahaztu gabe. 19:30ean, Atxulondon, Alex

Txikon, *Bihurrik* eta Xabier Errok emanaldia eskainiko dute: *Aizkora hotsak goi mendietan*. Ondoren, 2012ko kirolari esanguratsuen omenduko dute, Jon Irazu aizkolaria, hain zuzen ere. Eguna amaitzeko, Urkamendi elkartean, afaria egingo dute. Txartelak 10 euroren truke eros daitezke, udal bulegoetan, Atxulondo tabernan eta Iriarten.

Larunbatarekin batera Kirol Asteke egun handia etorriko da Zizurkilera. Hamabi orduz kirolean ariko dira herritarrak. Besteak beste, Eguberrietako Halterofilia Trofeoa jokatu da 12:00etan, Intxaur frontoian. Gauean, Zizurkilgo XIV. Gau Krosa lehiatuko da. Izena emateko mahaiak 21:00etan jarriko dituzte.

Manu Azkaratek helegitea jarriko dio bere aurkako ebazpenari

A. Imaz Tolosa

Frantziako justiziak Manu Azkarateren Espainiaratzea onartu zuen atzo. Frantziako Tolosako epaitegiak tolosarraren helegitea atzera bota zuen, eta Espainiaren estradizio eskaria onartu zuen. Azkarateri atzo goizean jakinarazi zion albiste bere abokatuak. Tolosarraren esanetan, kasazio helegitea jarriko dio orain Tolosako epaitegien ebazpenari. Helegite berri hau Parisen aztertuko dute, eta bertan erabakiko dute Espainiaratu ala ez.

Manu Azkaratek Tolosako epaitegiaren erabakia espero zuela azaldu du, eta orain, aurretik hilabete batzuk izango dituztela aurreikusten du, Parisek erabakia hartu bitarte. Azken erabakia hau, arrazoietan baino prozeduran oinarrituko dela azaldu du tolosarrak. Aurrez, Pauko epaitegiak bere aurkako estradizioa onartu zuenean, Pariseko epaitegiek prozesua bertan behera utzi zuten, forma akatsak argudiatuta. Oraingoan ere, Parisek bere aldeko erabakia hartzea nahi du Manu Azkaratek.

Villabonako PSE-EE bosgarren edukiontzia alde agertu da

Villabona eta Zizurkil Txukun taldearen sinadura bilketaren kanpainarekin bat egin du Maria Luisa Arijak

A. Imaz Amasa-Villabona

Villabonako PSE-EE alderdiko hautetsia, Maria Luisa Arija, «biziklapenaren eta bosgarren edukiontzia alde» agertu da. *Villabona eta Zizurkil Txukun* herri ekimena bultzatzen ari den sinadura kanpainarekin ere bat egin du Arijak, eta herritarrak sinatzea gonbidatu ditu.

PSE-EEren zinegotziak, billabonatarrei, atez ateko hondakin bilketa sistemaren aurrean, «euren kezka eta gaitzespena» adierazteko eskatu die. Bosgarren edukiontzia alde azaltzeko arrazoiaren artean, bilketa honen eraginkortasuna azpimarratu du Arijak, horrekin batera, «borondatezko bilketa sistemaren alde» daudela azaldu du. Atez atekoa, garestia, deserosoa eta behartutakoa dela salatu du Arijak.

→ Laburrak

Maria Altunaren erakusketa ikusgai

ZIZURKIL › Maria Altuna herritarraren *Memoria. Ekintza*. *Aztarna*. erakusketaren inaugurazioa etzi egingo dute Atxulondon kultur etxean, 19:00etan. Abenduaren 22ra arte egongo dira Altunaren lanak ikusgai bertan. Irudiak argazki zaharretatik abiatzen badira ere, ez dira erakusleho soilak, eskalaren bidez iragana eta oraina elkartzeko guneak dira, leihoak bailiran.

Jacques Lecoq metodoa ezagutzeko aukera

ADUNA › Asvineneak Jacques Lecoq-en metodoa ikasteko aukera antolatu du urtarilaren 4, 5 eta 6an, 17:00etatik 20:00etara. Matrikula 75 eurokoa da, eta izena *asvineneak-kola@gmail.com* helbidean eman behar da, edo 689 79 24 69/605 41 08 80ra deituta.

Udal pilotalekuaren erreserbak, 2013rako

ANOETA › 2013. urterako Anoetako frontoiko orduen erreserba egin nahi duten guztiak bilerara deitu ditu udalak, urteko orduen banaketa adosteko. Batzarra hilaren 18an izango da, asteartean, 18:30ean udaletxean.

'Eguzkiaren bidai' Gurea antzokian, etzi, 16:30ean

VILLABONA › Irrien Lagunak taldearen *Eguzkiaren bidai* ikuskizuna ikusteko aukera egongo da etzi, hilaren 16an, Gurea antzokian. Emanaldia 16:30ean hasiko da, eta arlo didaktikoa, testua, musika eta jolasak uztartzen ditu. Largarbista, Ane pirata eta Eki ditu protagonista ikuskizun dibertigarri honek. Urtao bakoitzak naturarekin eta eguzkiarekin duen harremana kontatzeaz gain, gure eguneroko bizitzan zer-nolako eragina duten azaltzen die antzezlan honek txikienei. Sarreraren prezioa 4,50 eurokoa izango da haur zein helduen tizat, eta leihatila 15:30etik aurrera egongo da irekita.

Langile euskaldun bat behar da INGELESEKO akademia batean arratsaldez lan egiteko

-Ezinbestekoa da ADVANCE edo B2 perfila izatea
-Esperientzia baloratuko da

Interesatuak deitu zenbaki honetara: 680 273 544

Bengoetxeari ez zaio gustatu Olaizolaren materiala

Goizuetakoak aukeratu dituen pilotak biziegiak direla esan du, eta lau t'erdirako aproposagoa dela bere materiala

Iñigo Terradillos Leitza

Egun nagusia gertu du Bengoetxeak. Lehenengo Olaizola izan zen finaleko eguna atzeratzeko eskatu zuena, bizkarrean min zuelako. Ondoren, Bengoetxea izan zen, ondoezak jota, astebeteko atzeraldia eskatu zuena. Bada, bata zein bestea prest dira igandean nor baino nor aritzeko Lau t'er-diko txapelaren lehian. Gasteizko Ogeta pilotalekuan izango da partida, 17:00etan hasiko den jaialdiaren barruan.

Finalean erabiliko dituzten piloten aukeraketa atzo egin zuten,

eta leitzarrari ez zaizkio gehiegi gustatu Olaizolak aukeratutakoak. Goizuetakoak aukeratutako bat «gehiegi» ateratzen dela frontistetik eta «bote handikoa eta biziegi» dela nabarmendu du. Leitzakoak azpimarratu du berak lau t'erdirako pilota «aproposagoak» hartu dituela, «bote gutxikoa» direlako.

Aimar Olaizolak 106,1 eta 105,7 gramokoak aukeratu ditu, eta Oinatz Bengoetxeak, 106,6 eta 105,4 gramokoak. Oso pilota ezberdinak, beraz. Olaizola II.ak, bere aldetik, aitortu du «oso desberdinak» direla pilotak, baina, «gustura» dagoela materialarekin. «Eskuan hobeto sartzen ziren piloten» alde egin duela berak azaldu du.

Bengoetxea VI.ak ez du inoiz jantzi lau t'er-diko txapela. Olaizola II.ak, berriz, bost aldiz irabazi du txapelketa; 2002an, 2004an,

2005ean, 2008an eta 2011n. Bengoetxeak lortu duen handiena 2008ko Buruz Burukoa izan da, eta azaldu duenez, hura bezain garrantzitsua izango litzateke uneotan txapelketa hau lortzea.

Markagailuak noren aldeko emaitza adieraziko duenaren esperoan, Leitzan festa handia izango dela argi dago. Pilotalekuan bertan leitzar ugari izango dira, eta batako edo besteak irabazi, Leitzan jarraituko du jai giroak protagonistetako batekin.

@ Facebooken egindako inkestan 321 lagunek hartu dute parte. Horietatik 179k uste du Oinatz Bengoetxeak irabaziko duela finala:



Emakumezkoen Napar Pala Txapelketa, finalerdien atarian

Hirugarren jardunaldia jokatu dute igandean, eta finalerdietara igaroko diren pilotariak erabakiko dira

I. Terradillos

Emakumezkoen I. Napar Txapelketa ligaxkako hirugarren jardunaldia jokatu dute igandean. Partidak Tafallan eta Larragan izango dira. Eskualdeko pilotariei dagokienez, Maider Mendizabal anoetarrek, Nagore Arozena lizartzarrek eta Ainhoa

Garmendia alegiarrek jokatu dute.

Elite mailan, Mendizabalek eta Continek osaturiko bikoteak Aristorena eta Ruiz Larramendiren aurka egingo du, Tafallan. Arozenak eta Irazustabarrenak, berriz, Larragan jokatu dute partida, Anduela eta Munetaren aurka. Iera Agirrek atsedean izango du asteburu honetan, baina, dagoeneko lortu du finalerdietarako txartela.

Lehenengo mailari dagokionez, finalerdietarako sailkatzea lortu duten Garmendiak eta Aristorenak Leunda eta Argainen aurka egingo dute, Tafallan.

→ Laburrak

Argazkilaritza ikastaroa antolatu dute otsailerako

LEITZA ▶ Argazkilaritza ikastaroa antolatu dute Leitzan. Otsailetik ekainera bitartean egingo dute, eta tartean lau iteera egingo dituzte. 280 euro ordaindu behar dira eta izena emateko 679 126 188 zenbakira deitu behar da.

Bosgarren herri batzarra egingo dute gaur, eskolan

BERASTEGI ▶ Berastegiko udal taldeak bosgarren herri batzarreko deia egin die herritarrei. Gaur izango da, 21:00etan, Muñagorri eskolako ganbaran. Besteen artean, ondorengo gaiak jorratuko dituzte bertan: Udaletxearen zaharberritze-lanen jarraipena; 2012ko aurrekontuaren nondik norakoak; 2013ko aurrekontuaren aurreikuspena; eta udal tasen aldaketa. Berastegiko Udalak herri-tar guztiak animatu ditu batzarrean parte hartzera.

Hainbat ekitaldi izango dira Elduainen, bihar, Elkartasun egunean

Jokoak egingo dituzte Berastegi, Berrobi eta Elduainen artean, dokumentala eta afaria ere izango dira

I. Terradillos

Elkartasun eguna egingo dute bihar, Berrobi, Elduain eta berastegiarrek. Hiru herri horiek hartuko dute parte, baina ekitaldiak Elduainen izango dira. 17:30ean, kirol jokoak egingo dituzte, Berrobi, Elduain eta Berastegiarren artean. Ondoren, 21:00an potea egingo dute, eta *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala ikusiko dute. Elkartasun argazkia egin eta gero afaria izango da, 21:00ak aldera. Bertarako izena emateko, udaletxera deitu behar du, 943 68 30 00 zenbakira.

Irudia ▶ Villabona



TXIKIEK BIODIBERTSITATEA LANDUZ

Villabonako Jesusen Bihotza ikastolan, Agenda 21 proiektuaren barruan, Biodibertsitatea ari dira lantzen aurten. Hori dela eta, Tolosako kultur etxean izan dira HH5eko gelako ikasleak. Bertan animalien inguruko antzezpen «polit» bat ikusi

dute. Antzerkiari esker animaliak ere zaindu egin behar direla garbi geratu zaie. Horretaz gain, paper birziklatua, intxaurren oskolak, margoak... erabiliatz txotxongilo moduko dortokatxo polit batzuk egiten ere ikasi dute. HITZA



Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



MARGARITA ALBIZU APAOLAZA

Azaro 14an, 75 urte zituela.

Elizaskoak eta Aita Santuaren Bederrikapena hartu ondoren.

—Golan begi—

Semana txiki Amorede, seme-alabak: Aitorra, Lami eta Isertxo Oñigari, Aitor eta Begonia Rodriguez; bilobak: Lito, Aitor, Gorka; arrebak: Lurra (1), Felix (1) eta Gertrude (1). Juan eta Dolores, Plati, Iñaki eta Mª Inma, Josepa eta Laureano, Sabar eta Maixabel, edon arrebak, Iñaki, Iñigo eta Iñaki eta Gorka eta Iñaki.

Familia obituarioa eskatzen duzue haren arimaren alde, eta DAUR OSTRALIA, anaiakideko ZAZPIETAN, Sagrario, Andre Mari, Jazpikaren arimaren aldean egindako hitza elizkizunaren gortetan berriro. Astelearen 14, mila esker.

SEKORA, 2012ko abenduaren 14a



AURELIANO JAUREGI JAUREGI

2012ko abenduaren 14an, 74 urterekin.

Elizaskoak eta Aita Santuaren Bederrikapena hartu ondoren.

—Golan begi—

Arma jurendaren, seme-alabak: Amaia, Edurne, Unai eta Lera Pagano; bilobak: Aitor eta Gorka; arrebak: Pamiel, Jose (1), Isidoro (1) eta Isidoro (1); (1) Mª Pilar eta Antonio, Mª Dolores (1) eta Inazio; edon arrebak: Karmen eta Aitor Jauregi (1), Jose Mari, Marika (1) eta Mª Lourdes eta Isertxo (1). Inazio (1) eta Lourdes, Isidoro eta Pamiel, Unai eta Isidoro (1). Ina eta Jose Mari Jauregi, Iñaki eta Gorka eta Iñaki.

Haren arimaren alde onak berriro eskatzen dituzte eta arimaren jazarritza IGANDIARI, 14ko, goizeko 10:00etan ZALDUKARI ELIZAN egongo den urteurrenko mezak. Bider aurretik, eskatzen dituzte.



GOIZA	LAINTUTIA
ARRATSALDEA	ELURIA
BEROENA	18°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunkoia: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
Gaukoia: Etxebeste, J. M. Gerni-
kako arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Campos, M. Z.
Elbarren, 52.
Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gau-
koa: Santamaria I.
Nafarroa etorbidea, 2.
943 65 46 10.
■ **Leitza.** Campos, M. Z.
Elbarren, 52.
Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Egunkoia eta gau-
koa: Morant, R. Zabalarreta, 1.
943 67 38 49.
■ **Leitza.** Campos, M. Z.
Elbarren, 52.
Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gau-
koa: Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.
943 67 09 15.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren.
95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Agenda

DEIALDIK

■ **Alegia.** Gaztetxearen 25. urteurrena dela eta, gaur, ping pong txapelketa egingo dute 22:30ean. Bihar izango dute egun nagusia: 11:30ean sagardo eta txorizoa banatuko dituzte, plazan, eta rumba poteoa egingo dute Harry&Quitau y los Desenfinaus-ekin; 14:30ean babarrun jatea egongo da gaztetxean; 16:30ean 7e pasa pilota txapelketako finalak ere izango dira; ondoren, triki poteoa egingo dute Maider&Eiderrekin; 21:00etan zahagiardoa egingo dute; 22:30ean Manillares Iturriagaren kontzertua izango da; eta bukatzeko, Beba, Panda, Deepresion, Xugua eta Alexander Loop Dj-ak.

■ **Tolosa.** Gurasoak ere ipuin kontari! saioa gaur, Errota haur liburategian, 18:00etan, Miriam Mendozaren eskutik.

■ **Tolosa.** Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde koordinakundearen urteko errepasoa egiteko bilera, bihar, 12:00etan, kultur etxeko areto nagusian.

■ **Tolosaldea.** Sortu alderdia eratzeko bigarren batzarra, bihar (ikus 2. orrialdea).

■ **Berastegi.** Elkartasun Azoka igandera bitarte aparkaleku azpiko lokalean.

■ **Alkiza.** Egoitz ipuin kontalariaren saioa, astelehenean, 18:00etan, liburategian.

KIROLA

■ **Zizurkil.** Kirol Astearen barruan gaur, 19:30ean Aizkora *hotsak goi mendietan* emanaldia Atxulondon, eta ondoren, Jon Irazu aizkolaria omenduko dute. Afaria ere egingo dute Urkamendi elkartearen eta txartelak 10 euro balio du. Bihar 10:00etan haurrentzat kirol jo-

koak Intxaur frontoian eta ondoren, hamaiketako eta opariak; 12:00etan halterofiliako Eguberrietako Trofeoa Intxaur frontoian; 15:30ean areto futboleko txapelketako finalak Otañon; eta 21:00etan Gau Krosean izena emateko aukera zabalduko dute eta lasterketa 22:00etan hasiko da. Igandean 10:00etan, II. Pilota Txapelketako finalak frontoian.

■ **Alegia.** Alegiako Intxurre elkartetik azaldu dutenez asteartero Euskal Mendi Federazioko agiria egiteko aukera izango da elkartearen egoitzan, 20:00etatik 21:15era. Abenduan, urtarilean eta otsailen egin ahal izango da agiria.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoa: bihar *La vida de Pi* 22:30ean; igandean 17:00etan *Campanilla* haur zinea, eta 19:30ean eta 22:00etan *La vida de Pi*. Astelehenean, ikuslearen eguna, *Pura vida* 20:30ean. Zuzendaria izango da bertan. Bonberenea: *Sua* filma 19:00etatik aurrera.

■ **Leitza.** *Looper* filma gaur 20:00etan, eta bihar 22:30ean.

■ **Ikaztegieta.** *Barrura begiratzeko leihoak* gaur, 22:00etan, udaletxeko areto nagusian.

MUSIKA

■ **Tolosa.** Gaur Bonberenean Willis Drummond 22:30ean, eta bihar, ordu berean, Elkano Browning Cream eta Makala.

■ **Tolosa.** Musika Eskolako bandako kontzertua gaur, 20:30ean, musika eskolan.

■ **Tolosa.** Benito Lertxundi gaur, Leidorren, 20:00etatik aurrera.

■ **Lizartza.** Garazi Esnaola eta Garazi Egigurenen kantaldia gaur, 22:00etan, kulturunean.



Ezkerretik eskuinera, Rafael Gorrotxategi, Alyona modeloa, Iñaki Gorrotxategi eta Yolanda Garcia. OIER ASO

Atelier Nupcial eta Gorrotxategi, elkarlanean

Joxemi Saizar Tolosa

Getariako Balenziaga museoa egin berri duten Cook & Fashion ospakizunari amaiera emateko, Tolosako Gorrotxategi gozodenda eta Zarauzko El Atelier Nupcial diseinu denda elkartu dira.

Inspirazio horren emaitza andregai soineko bat da; galtza irregulari drapatua dago eta itsasoko olatuak irudikatzen ditu.

Iñaki eta Rafa Gorrotxategi anaia tolosarrek, Atelier Nupcial Yolanda Garcia diseinatzaileak egindako soinekoaren gaineko sorkuntza egin dute. Olatuetan oinarritu dira eta naturako

loreak ere irudikatu dituzte. Bukatzeko, buruan kapela jarri dote modeloari, garbitasun gozosa irudikatuz.

Garcia diseinatzailearen sorkuntza Cook & Fashioneko modaren oinarrietan dago oinarrituta, Gipuzkoako natura eta itsasoko olatuak laguntzen duena. Horrela abangoardia eta tradizioa uztartzen dira, Balenziaga museoa-
ren ezaugarriak direnak, hain justu.

Gipuzkoako bi enpresa hauen uztarketa asko txalotu zuten aurkezpenean. Lan hori Zarauzko Atelier Nupciala erakuslehoan ikus daiteke egun hauetan.



OSTIRALEKO MUS TXAPELKETA 23:00ETAN

SARIK

1. saria: bilduriko diruaren %50
2. saria: bilduriko diruaren %30
3. saria: bilduriko diruaren %20
- 4.saria: 2 ardo botila

*HIRU OSTIRAL JARRAIAN IRABAZIZ GERO
IRIARTE JATETXEAN
BI PERTSONENTZAKO OTURDUA

ERNIOBIDEA, 7 **ZIZURKIL** Tel.: 943 69 62 57

Mauka GALURKO ESKAINTZA

Durangon asteburu bat pasatzeko eskaintza paregabea

ERROTA PENTSIDA
ATERPETREA
mauka 54
943 69 62 57
www.mauka.eu

55€

berria